

ERANSKINA

1. JARDUERA: BOTOIAK

Jarduera honen bidez lan ditzakegun edukiak:

- 1. arloa. **Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala**: 1. blokea.
- 3. arloa. **Hizkuntzak. Komunikazioa eta adierazpena**: 1. eta 3. blokeak.

Beharko dugun materiala:

Botoien txantiloiak (eranskinean) eta koloretako pinturak.

Hezitzailearentzako oharrak:

Ipuineko protagonistak aurkezteko, eman haur bakoitzari botoi-txantiloi bat, margotzeko. Lau ereduak modu orekatuan banatzen saiatu.

Botoiak kolorearen arabera sailkatu beharko dituzuenez, ipuinean bezala, sei koloretako pinturak bakarrik eman (urdina, beltza, orlegia, gorria, horia eta laranja).

Botoiak margotu ondoren, gorde, 2. jardueran erabiltzeko.

Garapena:

- Esan neska-mutilei ipuineko protagonistak botoiak direla, eta ipuina irakurri baino lehen ezagutuko dituzuela.
- Eman haur bakoitzari botoi-txantiloi bat eta esan margotzeko.
- Botoi guztiak margotu ondoren, eser zaitezte biribilean, eta haur bakoitza joan dadila besteei bere botoia erakusten.
- Jaso botoi guztiak eta gorde, 2. jarduerarako.



HAUR

Botoien txantiloiak:









ERANSKINA

2. JARDUERA: GARRANTZITSUAK GARA

Jarduera honen bidez lan ditzakegun edukiak:

- 1. arloa. **Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala**: 1. eta 2. blokeak.
- 2. arloa. **Inguruaren ezagutza**: 3. blokea.
- 3. arloa. **Hizkuntzak. Komunikazioa eta adierazpena**: 1. blokea.

Beharko dugun materiala:

Hiru kaxatxo, kartoizko kaxa bat eta neska-mutilek 1. jardueran apaindu zituzten botoiak.

Hezitzailearentzako oharrak:

Bilatu kartoizko kaxa bat, botoien kaxa irudika dezan. Neurriz egokia izan dadila, neska-mutilek 1. jardueran margotutako botoi guztiak bertan jaso ahal izateko.

Jarduera egiteko, hiru ilaratan jarri beharko dituzu neska-mutilak, irudiak erakusten duen bezala:



Ilara bakoitzean zenbat haur dauden zenbatu, eta haur bakoitzeko botoi bana sartu kaxatxoetan.



ERANSKINA

Garapena:

- Esan neska-mutilei Nekaneren jostundegian kokatzen dela ipuina, eta botoi guztiak atzeko kaxatxoetatik kaxa handira eramaten lagundu behar diotela, giza katea osatuz. Ilaran lehenengo dagoenak kolorearen arabera jarriko du botoi bakoitza kaxa handian. Irakasleak adi egon beharko du, eta kaxa handian kolore bakoitzak non joan behar duen adieraziko dio lehenengo dagoen horri (hori oso garrantzitsua da 3. jarduera egiteko).

- Egiaztatu denek ondo ulertu dutela jokoaren mekanismoa. Denbora mugatua eman ariketa egiteko (bi minutu, adibidez). Hasiera eman eta talde guztiak animatu.

- Emandako denbora bukatutakoan, talde bakoitzak egindako lanaren emaitza egiaztatu, baina taldean egindako lanari eman balioa, ez leku batetik bestera eramandako botoien kopuruari.

- Botoi guztiak kaxa handian daudenean, kolorearen arabera bereizita, hausnarketa egin, honelako galderen bidez:

  - Taldean aritu al zarete lanean botoiak kaxa handira eramateko?
  - Botoiak leku batetik bestera eramateko sortu duzuen kate horretan, denek garrantzi berbera zenutela iruditzen zaizue?
  - Zuen ustez, ilararen hasieran zeudenek garrantzi handiagoa zeukaten erdian edo atzean zeudenek baino? Zergatik?
  - Hausnarketa: lana taldean egiten dugunean, denek garrantzi berbera izaten dugu, bakoitzak bere zeregina duelako; batzuetan aurrean egon beharko dugu eta beste batzuetan atzean, baina horrek ez du esan nahi garrantzi handiagoa edo txikiagoa daukagunik.

  - **Eskuzabalak izaten gara:** lana taldean egiteko prest gaudenean.

  - **Ez gara eskuzabalak izaten:** nahiago dugunean protagonista izan eta aurrean egon, lana taldean egin baino.



3. JARDUERA: BOTOIEN KAXA

Jarduera honen bidez lan ditzakegun edukiak:

- 1. arloa. **Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala**: 1. eta 2. blokeak.
- 2. arloa. **Inguruaren ezagutza**: 3. blokea.
- 3. arloa. **Hizkuntzak. Komunikazioa eta adierazpena**: 1., 3. eta 4. blokeak.

Beharko dugun materiala:

Botoiak ipuina, berokiaren marrazkia, paper jarraitua, oihala, botoien kaxa, koloretako botoiak, zeloa edo blu tack, musika.

Hezitzailearentzako oharrak:

Ipuina irakurri baino lehen, material batzuk prestatu beharko dituzu, ipuina kontatzean neska-mutilek ere parte har dezaten:
-Haur bakoitzak 1. jardueran dekoratutako botoien txantiloiak.
-Eranskineko txantiloian oinarrituz, marraztu berokia paper jarraituan, eta zintzilikatu ikasgelan, ondo ikusten den leku batean. Ipuinean bezala estalita egon dadin, jarri gainean oihal zati bat edo paper jarraitu pixka bat.
-Kartoizko kaxa, barruan botoiak kolorearen arabera sailkatuta dituela, 2. jarduera amaitutakoan geratu ziren bezala.

Ipuinean haurrek ere parte har dezaten, banatu paper hauek (honako hau adibide bat da, 25 neska-mutilentzat):

-Nekane: irakaslea
-Berokiaren estalkia kentzea: 2 haur
-Botoi urdinak: 4 haur. Botoi urdinak eman.
-Botoi beltzak: 4 haur. Botoi beltzak eman.
-Atzeko botoia: 1 haur. Botoi bat eman.
-Ordezko botoia: 1 haur. Botoi bat eman.
-Botoi txikia: 1 haur. Botoi txiki bat eman.
-Botoiak berokian jarri: 6 haur. Botoi desberdinak izan daitezela.
-Kaxa mugitu, botoiak nahasteko: 6 haur.

Garapena:

- Esan neska-mutilei ipuin bat irakurriko diezula eta bertan denek hartuko dutela parte; hortaz, adi egon beharko dute, noiz jardun behar duten jakiteko.

- Jarri haur bakoitza bere lekuan, eta gogorarazi zer egin behar duen. Jarduerari hasiera eman baino lehen, egiaztatu denek ondo ulertu dutela egin beharrekoa.

- Ipuina kontatu, pertsonaia bakoitzari arreta dagokionean eskainiz; horretarako, narrazioan aurrera egin ahala, pertsonaia bakoitza dagoen lekura hurbildu.

- Ipuinaren amaieran, botoi guztiak elkarrekin bizi direla ospatzeko, jarri musika eta dantzatu.

- Bukatzeko, hausnartu ipuinaren edukiaren inguruan, honelako galderen bidez:

  - Zein koloretakoa da Nekaneren berokia?
  - Zergatik uste dute botoi urdinek besteak baino garrantzitsuagoak direla?
  - Zergatik uste dute atzeko botoiek eta ordezkoek garrantzi gutxi daukatela?
  - Zer esan die botoi txikiak beste guztiei?
  - Zer botoi aukeratu ditu Nekanek berokirako?
  - Kaxako botoiak kolorearen arabera sailkatuta al zeuden?
  - Zer gertatu da kaxan, ikustean Nekanek forma eta kolore guztietako botoiak aukeratu dituela berokian jartzeko?
  - Aukeratutako botoiak (kasu honetan, berokirako) gainerakoak bezain garrantzitsuak al dira?



HAUR



ERANSKINA

4. JARDUERA: KANTA DEZAGUN

Jarduera honen bidez lan ditzakegun edukiak:

- 2. arloa. **Inguruaren ezagutza**: 3. blokea.
- 3. arloa. **Hizkuntzak. Komunikazioa eta adierazpena**: 1., 2., 3. eta 4. blokeak.

Beharko dugun materiala:

Botoiak abestiaren audioa eta letra (eranskinean).

Hezitzailearentzako oharrak:

Jarduera honetan, abesti baten bidez, sendotu egingo duzue ipuinaren edukia eta aurreko jardueretan landutakoa.

Garapena:

- Gogoratu ipuina eta ipuinaren edukia.

- Jarri abestia eta esan abestiaren mezua adi-adi entzuteko.

- Erakutsi neska-mutilei abestiaren leloa, eta uler dezatela bere esanahia. Adibide gisa, ipuinean gertatutakoa eta 2. jardueran landutakoa har dezakezue:

  Aurrean egotea ez da garrantzitsua,
  denek egiten baitute ekarpena.
  Aurrean egotea ez da garrantzitsua,
  bihotza da axola duena.

- Ikasturtean zehar, indargarri modura erabili abestia, mezua gogoraraztea merezi duen egoera bat sortzen den bakoitzean.



HAUR

BOTOIAK

Bai egun ederra gaurkoa!
Ia prest dago Nekaneren berokia!
Botoiak besterik ez zaizkio falta.
Kaxan daude denak, ateratzeko irrikaz.

Tamainaren, formaren eta kolorearen arabera,
sailkatuta daude botoi guztiak;
inork ez du atzean geratu nahi,
denek egon nahi dute bistan.

Leloa:
Aurrean egotea ez da garrantzitsua,
denek egiten baitute ekarpena.
Aurrean egotea ez da garrantzitsua,
bihotza da axola duena.

Botoi txikiek uste dute
kaxan geratuko direla betiko;
eta urdinek pentsatzen dute
inork ez diela irabaziko.

Nekaneri, ordea,
botoi guztiak gustatzen zaizkio.
Denak jarriko ditu berokian,
kaxan ez du bat ere utziko.

Leloa:
Aurrean egotea ez da garrantzitsua,
denek egiten baitute ekarpena.
Aurrean egotea ez da garrantzitsua,
bihotza da axola duena.



IPUINA

BOTOIEN KAXA

Gaurkoa egun berezia da
Nekaneren jostundegian,
berehala jakingo baitugu
zertan aritu den lantegian.

Soineko bat ote da?
Zetazko gona bat, agian?
Inork ez daki zer dagoen
oihal handiaren azpian.

Botoien kaxan
urduri daude denak.
Zurrumurruak entzuten dira:
"estalita dagoen hori, zer ote da?"

Halako batean, Nekanek,
kendu egin du estalkia...
Beroki eder bat da,
zerua bezain urdina!

Botoi urdinak
txaloka hasi dira,
berokia urdina denez
joango direlakoan haien bila.

Gainerako botoiak
triste jarri dira.
"**Ez garenez urdinak,**
Nekane ez da jarriko guri begira".
(**Botoi beltzek esan dute hori**)

Urdinak harrotu egin dira,
onenak direla sinetsita:
"Zeinen ederrak garen;
bai garela politak!".

"Nik atzean egon behar dut,
oihalak eusten tinko,
baina ezkutatuta egongo naizenez,
inork ez nau ikusiko".

"Okerrago egongo naiz ni,
denen ordezkoa izango naizelako.
Bakoitza bere lekuan egonez gero,
ez naiz kanpora sekula aterako".

(**Hurrengo lau paragrafoetan botoi txiki batek hitz egiten du**)
"**Ez du axola non gauden,**
ez izan ezeren beldur;
denok gara garrantzitsuak,
denok lagun dezakegu".

"Zer gertatuko litzateke
botoi bat galduko balitz?
Beste botoi bat jarriko lukete,
hariarekin josiz".

"Denek ikusten dituzte
aurrealdeko botoiak,
baina ezkutatuta daudenak ere
behar ditu berokiak".



IPUINA

“Oraindik ez dakigu ze botoi hartuko dituen aurrean jartzeko, baina denon beharra dauka berokia janzteko”.

Hara zer erabaki zuen Nekanek
kaxako botoiak aztertzerakoan:
“Botoi guztiak jarriko ditut,
forma eta kolore guztietakoak”.

Botoiak saltoka hasi ziren,
pozaren pozez.
Bai beroki ederra,
hainbeste kolorez!

Ikustean botoi guztiak
ezberdinak zirela,
ikusi zuten gauza bat ikasteko
garaia iritsi zela:

Denak elkarrekin bizitzeko
garaia iritsi zela!
Ikus zer gertatzen den
kaxa gogoz astintzean.

Botoiak nahasi egin dira!
Ospatu egin behar da hori!
Jarri musika eta ikusi
dantzan nola hasten diren poz-pozik.

Egin dantza zuk ere,
eta gogoan izan
taldearen barruan
zuk ere baduzula garrantzia.

Batzuetan aurrean egongo zara;
besteetan atzean,
baina eskuzabala izan beti,
eta baloratu besteak.

Orain, jarri musika ozen
eta has gaitezen dantzatzen!